

Erkituta

ANIMALIAK jaten dituzten animaliak baratzearen lagun izan daitezke: jandakoa kaltegarria izan edota, areago, izurrite bihurtzeko erraztasuna badu. Horien jale direnak gure baratzearen ingurura erakarri eta bertan ezartzera gonbidatu behar ditugu. Haien gustuko giroa sortuko duten zuhaixka eta belarrak jartzeko nioen lehengoan.

Hura nioen *Elkar jan* artikulutxoaren bueltan, Facebookeko lagun batek Ambrose Bierce handiaren *Deabruaren Hiztegia* liburu ezin handiagoa ekarri dit gogora. Mila esker, Edorta. Hiztegi hori bikain ekarri zuen euskarara

Xabier Olarrak; hona “jangarri” hitzaren ordaina: “Jateko eta, oro har, digeritzeko ona, hala nola harra apoarentzat, apoa sugearentzat, sugea zerriarentzat, zerria gizonarentzat, eta gizona harrentzat”.

Animalia animaliajaleen zain izan gabe, animaliak jaten dituzten landareak ere badira. Euskal Herrian baditugu batzuk: muki belarrak (*Pinguicula lusitanica* eta *Pinguicula grandiflora*), *Utricularia vulgaris*, eguzki ihintza (*Drosera rotundifolia*) eta haren bestengusinak (*Drosera anglica* eta *Drosera intermedia*). Horiek berez dira

Bi zimitz berde kaputxinaren lorean.



ADALDO ALMEIDA

hemengoak. Aspaldian, mundu guztiko landare intsektujale ugari ikusten da saltokietan.

Landare horiek lur elkorretan bizitzera ohitu dira. Elikagai eskasia intsektuak harrapatu eta janez erremediatzen dute. Barruak urtu eta hustu eta azal gogorra besterik ez dute uzten. Intsektuak ehizatze teknika ugari garatu dute landareok: kakoak, amuak, lakioak eta lazoak, zepoak, sarrera bai baina irteerarik gabeko ontziak, trabakatzeko guneak, nasak, kola itsasgarriak... “Landare haragijale” deitzen zaie, baina “intsektujale” deitu beharko genieke. Benetan haragia jaten duen landarerik ba ote den, aspaldiko eztabaida da. Jan, guk jatea eta irenstea ulertzen dugun eran, ez, noski; baina animalion haragia baliatzen duten landareak, bai.

Hau txiletarra da: *Puya chilensis*. Lur agorretan bizi da. Loretzar luze bat ematen du, hiru metro eta erdi arterainokoa, dena arantza beldurgarritz josia. Arantza horiek loretxoak babesten dituzte, belarjaleek jan ez ditzaten. Baina, oharkabea gehiegi hurbilduta edo haize kolpe batekin, arantzetan trabatu daiteke, hegazti bat bezala arkazte bat. Bertan gosez hil eta erkitutako landarearen lurra aberastuko dute. ■



Kala LORE APAINDURAK
Paisajismo zerbitzua
Terraza eta lorategiak diseinatzea
San Frantzisko, 24 • 20870 Elgoibar
Tel: 943744516



Lislore
LOREDENDA
☎ 948 225 179
Kale Nagusia, 70 • Iruña
lisloredenda@hotmail.com



S.A.T. LEGU
LANDAREK
Biberoak SAT Legu
C/ Goitoltza Auzoa, 36 • 48196 Lezama Bizkaia
Telf: 944 556 198 • biberoaklegu@gmail.com
www.satlegu.com